

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

373/2021 Foru Agindua, irailaren 27koa, abiarazten duena espediente Aramaioko Udalaren Murumendi/Murugain (Aramaioko udalerriko 6 poligonoko 105 katastro lurzatia) mendi publikoa mugatzeko, hain zuzen, I. B. M. L.ren katastro titulartasuneko lurzatiarekin (Aramaioko 6. poligonoa, 103 lurzatia) muga egiten duen zatian

Mendi Zerbitzuak jakinarazi du irailaren 27ko 372/2021 Foru Aginduaren bidez iraungitatzeko delata 303/16 espediente, Aramaioko udalaren jabetzako eta udalerriko Murumendi, San Adrian eta Karaikogain izeneko mendi publikoen mugaketa eta mugarritzea egiteari buruzkoa. Horrela bada, eta ikusita zer xedatzen duten Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. eta 95. artikuluek eta Mendien martxoaren 26ko 11/2007 Foru Arauaren 28. artikulua, bidezkoa da prozedura abiaraztea Aramaioko Udalaren titulartasuneko Murumendi/Murugain (Aramaioko 6. poligonoko katastroko 105. lurzatia) mendi publikoa mugatzeko, hain zuzen, I. B. M. L.ren titulartasuneko lurzatiarekin (Aramaioko 6. poligonoa, 103 lurzatia) muga egiten duen zatian.

Nahitaezko txostenak aztertuta, Nekazaritza Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala onesten duen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 14/2016 Foru Dekretuak ematen dizkidan eskumenez baliatuz, eta Arabako Foru Aldundiko Sailak 2019-2023 Legegintzaldirako finkatzen dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren bederatzigarren xedapena aplikatuz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa Abiaraztea eta 286/21 espediente zenbakiarekin izapidetzea Aramaioko Udalaren Murumendi/Murugain izeneko mendi publikoaren (Aramaioko 6 poligonoko 105 katastro lurzatia) hegoaldeko mugaren mugaketa partzial administratiboaren prozedura, I. B. M. L.ren jabetzako Aramaioko 6 poligonoko 103 lurzatiarekin mugakide den zatian.

Bigarrena. Agintzea iraungitako espedienteen egintza independienteek ondorioak izan ditzatela eta egintza horiek gehi daitezela, zehazki, interesdunek izan ditzaketen eskubideak egiaztatzeko aurkeztutako dokumentazioa.

Hirugarrena Erabakitzea mugaketa egoeran dagoela adieraztea Aramaion dagoen eta udal horrena den Murumendi/Murugain izeneko mendi publikoa (Aramaioko 6 poligonoko 105 katastro lurzatia), hain zuzen haren hegoaldeko muga, zeinaren mugakide Aramaioko 6 poligonoko 103 katastro lurzatia baita, katastroan jasotakoaren arabera I. B. M. L. rena dena. Adierazpen horrekin ez da murrizketa berezirik ezartzen.

Jakinaraztea aipatutako mugaren neurketa egintza 2021eko urriaren 19an egingo dela, eta elkargunea Untzillako elizan izango da, 10:00etan.

Egintza horretara joan beharko dute mugakideek, Aramaioko 6 poligonoko 103 lurzatiaren katastro titularrek eta interes legitimoa dutela egiaztatzen duten pertsonak. Neurketa lanetara bertara aurkeztu ez direnek edo legezko ordezkari edo borondatezko baten bidez joaten ez direnek ezin izango dute gero erreklamaziorik aurkeztu horren aurka, alegazioak jabetza erregistroan inskribatutako tituluekin batera aurkeztu dituztenek daukaten eskubidea gorabehera.

Iraungitako espedienteen mugakideek aurkeztu dituzten agiriak berrabiarazitako prozedurara txertatuko diren arren, ediktu hau argitaratzen denetik aurrera 10 eguneko epean, bai mendia- ren edo mendia- ren zati baten jabetzarako eskubidea dutela adierazten dutenek bai mugakide

izanik eduki dezaketen eskubidea egiaztatu nahi dutenek kasuan kasuko agiriak aurkeztu beharko dituzte Aramaio Udalaren bulegoetan (Bixente Goikoetxea plaza 1, 01160-Aramaio) edo Arabako Foru Aldundiaren Mendi Zerbitzuan (Probintzia plaza 4, lehen solairua, bulego teknikoak, 01001 Gasteiz).

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 27a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE